

# TXAKUR KATUUA



Gaur egungo gizartean gero eta nabarmenagoak diren bi arazo nagusi daude, eta gure proiektuaren helburua bi arazo horiei batera irtenbidea ematea da. Alde batetik, abandonatutako maskoten arazo larria dugu. Txakur eta katu askok kalean edo animalien babeslekuetan bizi behar dira, askotan baliabide gutxirekin, arreta egokirik gabe eta maitasuna jasotzeko aukerarik izan gabe. Animalia hauek, abandonatuak izan arren, konpainia emateko eta pertsonen bizitza hobetzeko gaitasun handia dute.

Bestetik, bakardadea gero eta ohikoagoa den arazo sozial bat da, bereziki adineko pertsonen artean, baina beste adin-talde batzuetan ere. Pertsona asko bakarrik bizi dira, eguneroko harremanik gabe, eta horrek tristura, motibazio falta eta ongizate emozionalaren galera ekar ditzake.

Arazo hauei aurre egiteko, abandonatutako animalien kafetegi bat sortzea proposatzen dugu. Kafetegi honek espazio seguru eta atsegina eskainiko die abandonatutako animaliei, non zaintza, arreta eta maitasuna jasoko duten, eta aldi berean adopzio aukerak handituko diren. Gainera, kafetegira etortzen diren pertsonak animaliekin denbora pasatzeko aukera izango dute, haiekin jolastuz, laztanduz eta konpainia sentituz.

Modu honetan, gure proiektuak bi onura nagusi sortzen ditu: alde batetik, animalien bizi-kalitatea hobetzen du, eta bestetik, pertsonen bakardade sentrazioa murrizten laguntzen du, harreman emozionalak sortuz. Gure ustez, kafetegi hau ez da soilik atsedeen eta aisialdirako leku bat izango, baizik eta elkartasuna, enpatia eta ongizate emozionala sustatuko dituen gune sozial bat.

